

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

188/2019 Foru Agindua, ekainaren 26koa, zeinaren bidez behin-behineko izendapenak baimentzen diren Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanposturako, titularren oporraldiagatik

Legutioko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra daukala, María Ángeles Otaola Elortegui udaleko idazkari-kontuhartzaile titularra oporretan ordezkatzeko.

Horregatik, proposatzen du ondoko funtzionario hauek behin-behinekoz izendatzea:

María Purificación Astondoa Ochoa de Echagüen andrea: 2019ko uztailaren 15etik abuztuaren 2ra bitartean (biak barne).

Aitziber Criado Goikoetxea andrea: 2019ko abuztuaren 5etik 16ra bitartean (biak barne), eta 2019ko irailaren 10etik 20ra bitartean bitartean (biak barne).

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du 27/2013 Lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta–, non finkatzen baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ondoren aipatzen diren funtzionarioak behin-behinekoz izendatzea, Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostuari dagozkion eginkizunetan jardun dezaten haren titularra oporreatatik ez dagoenean:

María Purificación Astondoa Ochoa de Echagüen andrea: 2019ko uztailaren 15etik abuztuaren 2ra bitartean (biak barne).

Aitziber Criado Goikoetxea andrea: 2019ko abuztuaren 5etik 16ra bitartean (biak barne), eta 2019ko irailaren 10etik 20ra bitartean (biak barne).

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako epean baino ez du izango indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Legutioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 26a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ